


bidégileak




Filipe Oihanburu (1921)

Egilea:

ENEKO BIDEAIN

Euskara bihotzean

Laurogeita bost urte, eta oraino gazte. Filipe Oihanburu —izengoitiz *Pupu*— bizi-tasunez betea da. Oraino ere jarraitzen du Etorburu abesbatza kudeatzen. Ezker-eskuin dabil. 2006ko azaroan Eresoinka taldearen oroitzapenetan Saran aritu da abesbatza horrekin. Horren prestatzen ibili da buru-belarri. Gaztarora itzuli da horrekin. Ikusgarriaren 70. urteurrenaren ospatzeko, ekitaldi handia antolatu dute Saran. Eresoinkaren adibideak, dudarik gabe, eragin handia ukan zuen Oihanbururen dantzarako, musikarako, antzerkirako eta kantarako zaletasunean.



Philippe Oyhamburu (1921)

Eusko Jaurlaritza erbesteratuak ikusgarri hura antolatu zuen, Euskal Herria nazioartean ezagutarazteko. Oihanburuk Parisen ikusi zuen ehun jokalaria biltzen zituen obra. 1937ko abendua zen. Bi urteren buruan berriz ikusi zuen. Bizi artistiko aberats baten hastapena izan zen. Gaur egun garai hartaz daukan oroitzapenaren heinekoa.



Filiperen aita



Filiperen ama

Oroitzapenez beterik dauka Miarritzeko etxea. Apalak liburuz lepo, garai bateko irratzaioen zinta guztiak bildurik, paretak ikusgarri zaharren afixekin apaindurik, logelako apalak argazki bilduma andanarekin osaturik... Argazkiek mila istorio kontatzen dituzte, mila bidaia. Gizon alaia eta jostakina dela erakusten dute. Eta alaia da oraino ere. Gustura egiten du irri.

Bizitasun berarekin ematen ditu euskarako klaseak Miarritzen, oraino ere. Euskara errotik sartua du bihotzean, eta dakiena helarazten jarraitu nahi du. Plazer handia hartzen du bilobak ikastolan ezarri dituztelako.

Atsekabe txiki bat dauka, ez baitzen Euskal Herrian sortu. Hendaian sortu beharra zen,



Bere arrebarekin hondartzan



Jaunartze egunean

baina familiako gorabehera batzuen ondorioz, Argeles-Gazost-en sortu zen, Biarnon, amaren lehengusuaren herrian, 1921ean. Hiru hilabete zituela joan zen Montevideora (Uruguai) bizitzera, gurasoekin. Aitak Montevideon aurkitu zuen lana, eta zortzi urtez egon ziren han. Hautzaroaz oroitzapen arras onak ditu.

Gurasoek frantses seroren eskolara igorri nahi zuten idazten eta irakurtzen ikastera. Oihanburu txikiak hainbeste negar egin zuen non, azkenean, ez zuten hara igorri. Ondorioz, zortzi urteak arte ez zen eskolan abiatu. Etxean ikasi zuen irakurtzen, idazten eta marrazki egiten. Frantziara bizitzera joan arte ez zen eskolan ibili.

Paris-Miarritze

Uruguaitik Parisera joan ziren. Han egon ziren 1930etik 1939ra, aitak Parisen aurkitu baitzuen lana. 1939an itzuli ziren Miarritzera, aita erretretan sartu zelarik, aitaren etxera. *Nere itzultzea* zuen izena etxeak, aita aski euskalzalea baitzen. Gurasoek euskara ia galdua zuten. Aita 1876an sortu zen. Garai hartan Miarritzen gaskoia zen nagusi, eta Oihanbururen familian gaskoiez mintzo ziren. Haatik, Filipe Oihanburuk geroago jakin zuen bere aitaren aitamek euskara bazekitela.

Parisen bizi zela, Filipek oporrak izeben etxean iragan zituen, Hendaian, 1935ean,



Eskiatzen 15 urterekin

1936an, 1937an, 1938an eta 1939an. Urte haietan ez zen abertzalea, baina euskara baitezpada ikasi behar zuela pentsatu zuen. 1937an Irundik iheslari anitz joan ziren Iparraldera. Parisen fandangoa dantzatzen ikasia zuen. Hendaian zegoela, Irungo neska batzuekin fandango dantzatzen hasi zen. Felix izeneko zazpi urteko hondarribiar bat juntatu zitzaien. «Zu espainola zara?», galdetu zion Filipek haur hari. Mutiko haren erantzuna: «Ez, euskalduna naiz, zu bezala».

Oihanbururen erranetan, hori ez zen aski izan abertzale bihurtzeko, baina... Geroago Miarritzen bizitzen hasi zelarik, Jontxu Hillau eta Piarres Landaburu baigorriar txistulariak

ezagutu zituen. Eta bereziki, Arrangoitzeko Michel. Orduko markesaren semea zen. Markesa ez zen batere euskaldunen aldekoa, baina semea bai, euskara ikasi zuen, txistua jotzen bazekien, euskal dantzak bazekizkien. Euskara ikasi zuten burges gazteak arras gutxi ziren garai hartan.

Arrangoitzeko Michelen adiskidea Eresoinka dantza taldeko dantzari bat zen, Saseta. Ehun bat dantzari, kantari eta musikari baziren talde hartan. Oihanburuk Saseta ere ezagutzen zuen. Saseta eta Arrangoitzeko Michel elkarrekin euskaraz entzuteak eragin bat ukan zuen Oihanbururen baitan.

Euskal iheslari gehiago ezagutu zituen ondotik: Sota familia, Urresti, Monzon... Haiek

guztiak ezagutuz abertzale bihurtu zen. Euskararen maitasunetik abiatu zen, eta gero, harreman horien bidez abertzaletasunera egin zuen jauzia, 19-20 urtetan. Euskara ikasteko erabakia ere hartu zuen, orduko abertzale erdaldun frankok ez bezala.

Urte haietan arras abertzale gutxi ziren Ipar Euskal Herrian, dozena bat: Marc Legasse, Jakes Legasse, Borthayre, Michel Labeguerie, Piarres Xarriton eta abar. Piarres Lafittekin ere harremanetan zeuden. Filipek eta biek asmatu zuten, funtsean, Oldarra dantza taldearen izena.



Filipe 22 urtekin



Filipe Oihanburu trikitia jotzen, Arostegi eta Maite Oihanbururekin batera

Musikari eta dantzari

Oldarra izanen zen taldeak, lehenik, Olaeta zuen izena. Don Segundo de Olaetak Elai-Alai taldea sortu zuen, Gernikan, 1936ko gerla aitzin. Gerla garaian, Frantziara ihes egin zuen, eta Parisen Elai-Alai-rekin segitu zuen. Baina bigarren gerla mundiala hasi zenean, Eresoinka taldea eta Elai-Alai desegin ziren. Ipar Euskal Herrira itzuli zenean, Olaeta Miarritzen kokatu zen. Jean-Pierre Urikarriet apaizari esker, 1941ean Olaetak talde bat sortu zuen, bere

seme-alabekin, errefuxiatu gutxirekin, baina Miarritzeko gazte anitzekin.

Jontxu Hillauk Oihanbururi galdegin zion Olaeta taldera etor zedin. Lehenik ezetza erran zuen, eta gero baietz. Oihanburu akordeoi jole gisa hasi zen, eta gero dantzari gisa. Musika maite du, euskal kantu batzuk «paregabekotzat» dauzka, eta horrek hunkitu zuen. Guridi eta Aita Donostia izugarri gustatzen zaizkio.

Artista sena amaren aldetik etorri zitzaion. Aitaren aldetik denak langileak zituen, itsas-



Santa Ageda Miarritzen. Ezkerretik eskuinera, Jakes Abeberri, Filipe Oihanburu, Basterretxea, Bonnet, Alberdi, Cabanne, Prades eta «Txato»



Parisko frontoian, 1943ko ekainaren 20an. Errepika taldearen emanaldia. Filipe Oihanburu dantzan

gizonak edota langileak. Baina amaren aldetik itsaslapur bat eta margolariak baziren. Musikaz gain, dantza ere gustatzen zitzaion. Musika «ahal bezala» ikasi zuen, ariz. Gazte garaian swing dantzari biziki trebea zen. Dantza anitz maite zuen, eta Bizkaiko dantzak ezagutu zituenean mirespenez bete zen dantza haientzat. Bere ustez, Bizkaiko, Zuberoako eta Gipuzkoako dantzak «altxorrak» dira. Dantza horiek munduari ezagutaraztea zen haren ametsa. Dantza talde profesional bat sortu nahi zuen, munduari «altxor» hori erakusteko.

Olaetarekin dantzak ikasten hasi zen. Olaetak zekizkien dantza guztiak irakatsi zizkion. Bere «abertzaletasunaren itzultzeko molde» bat zen.



Yvonne Lasserre eta Filipe Oihanburu, Urruñan, 1952ko urrian

Gerlako moztura

Ipar Euskal Herrian bigarren gerla mundiala bete-betean ziren. Hala ere, dantza ikusgarriak eskaintzen zituzten. Hazparden dantzak eskaini zituzten batez, «burges tripa-handi» batzuk sutan jarri ziren, baizik eta ez zela normal dantzan aritzea, presoak gosez hiltzen ari ziren bitartean. Hazpandarrek dantzarien alde egin zuten.

Aldi berean, Espainiako Kotsulak arras begi txarrez ikusten zituen Olaeta taldearen lan artistikoaren ondorio politikoak. Presioei men eginez, Olaeta familia Bizkaira itzuli zen. Jon-txu Hillauk lana bilatzen zuen Parisen eta Arrangoitzeko Michel De Gaulle-rengana joatekotan zen. Oihanbururi, aldiz, alemanek Atlantikoko Paretan lan egitera joan zedin eskatu zioten. Horren orde, ihes egin zuen. Parisera joan zen, han Euskal Herrian baino aiseago gordeko zela pentsatuz.

Geroago, liburu bat idatzi zuen Parisen ezagutu garaiaz, gerla denboraz. Urte zailak izan ziren. Janari eta diru gutxi zuen. Ahal bezala lan egiten zuen, beltzean, zerbait jan ahal izateko, polizia kontrolak ekidinez... Izan ziren memento latzak eta oroitzapen onak ere bai. Neska judutar batekin maitasun istorio bat hasi zuen han. Neska haren gurasoak ez zituzten atxilotu. Maiz joaten zen haien etxera afaltzera.

Gero, bere lehen andrea izanen zena ezagutu zuen. Haren aita Eusko Jaurlaritzakoa zen. Haren bitartez euskaltzain batzuk ezagutu zituen. Horregatik, oroitzapen bitxiak sortzen dizkio garai hark. Gordetzera behartua izateak, leku batetik bestera mugiarazten zuen. Baina, bestalde, anitz lagundua zen eta jende anitz ezagutu zuen. Donostiako neska horrekin ezkondu zen, 1946an. Arrangoitzen ezkondu ziren. Agirre lehendakariaren anaiak han ziren, Monzon, Ziaurriz Euskadi Buru Batzarreko lehendakaria ere bai.



Etorki taldearen dantza errepetizioa Launey-ko gazteluan (Loira eskualdea).
Filipe Oihanburu gidari. Barran, J.-L. Aranguren, Daniel Darrouzes eta Fito Ziordia

Iheslariekin euskalduntzen

Bigarren Mundu Gerla bukatu baino pixka bat lehenago Euskal Herrira itzuli zen, eta euskara ikasi behar zuela erabaki zuen. Larresoroko etxalde batera joan zen lehenik, Emile Hirigoien adiskide abertzalearen etxera. Baina ez zuen ikasi. Ordu haietan ez zen libururik euskara ikasten laguntzeko. Euskaldunak eta erdaldunak baizik ez ziren, eta erdaldunek ez zezaketen euskara aise ikas. Larresoroko etxeoak «sobera laster» mintzo ziren euskaraz, eta ez zituen elkarrizketak jarraitzen ahal. «Kanpainakoek uste dute ez dakitela euskara



Filipe Oihanburu, Yurre eta Urrutikoetxea Loirako gazteluan dantzan

ongi. Haiek dakite euskara ongi! Haiek dute euskara aberatsa, guk ez duguna!», dio Oihanburuk.

Beste hilabete eta erdiz Ezpeletan egon zen. Han ere ez zuen lortu ikastea. Hirugarren al-dian Aldudera joan zen. Han ere gutxi ikasi zuen. Gerlaren bukaeran Miarritzeko etxera itzuli zen euskara ez zuela inoiz ikasiko pentsatuz. Baina ikasi zuen. Oldarra dantza taldean errefuxiatuak baziren, eta haiek frantsesik ez zekiten. Haiekin hasi zen, beraz, euskaraz mintzatzen. Gero Monzon ezagutu zuen, eta harekin mintzatzen zen.

Errefuxiatu horietatik anitz Hegoaldera itzuli ziren. Baina joaterakoan, liburu biziki erabilgarriak utzi zizkieten Iparraldekoiei. Liburu haiekin ere anitz ikasi zuen Oihanburuk. Hegoaldea ezagutzean ohartu zen «mundu bat bazela». Ipar

Euskal Herria baserri mundu bat zen. Hegoaldea ezagutzean, itxaropena sortu zitzaion. Donostiako estropadetara joan zen egun batez, ez zen gutxi harritu hainbeste «aurpegi euskaldun» ikustean. Miarritzen ez zuen halako ohiturarik.



Filipe Oihanburu Iñuderen fandangoa dantzatzen



«Orhi pian» ikuskizuna, Miarritzeko udal kasinoan, 1954ko uztailaren 22an

Talde zuzendari

Oraino Euskal Herrira itzuli aitzin ere jarraitu zuen artista bizia, gerlaren erdian. Pariseko euskal ikasle talde batek Errepika abesbatza sortua zuen, eta Jontxu Hillauk hartan parte hartzea proposatu zion. Oihanburentzat poz handia izan zen, eta bigarren tenor gisa aritu zen kantari.

Taldea 1944ko maiatzean utzi zuen. Osagarri ahula zuen urte hartan, eta Akizeko bainuetara joan zen artatzera. Parisen iragan urte ilunen, klandestinitatearen eta janari eskasaren ondorioak ziren.

Urte berean itzuli zen Euskal Herrira eta zuzendari artistiko gisa sartu zen Olaeta taldean. Orduan izena aldatzea erabaki zuen. 1945ean hasi ziren Oldarra izenarekin, Miarritzeko udal kasinoan. Filipe Oihanburu izan zen talde haren sortzailea.

Gelasio Aranburu apaiza zen Oldarra taldeko abesbatzaren buru. Baina kantariak ez zituztelako entsaioak behar bezainbat jarraitzen, haserretu eta taldea bet-betan utzi zuen. Ikusgarriaren eguna hurbiltzen ari zen, eta zuzendaririk gabe zeuden. Filipe Oihanbururi abesbatza zuzentzea eskatu zioten, nahiz eta horrelakorik ez zuen inoiz egin.

Oldarra taldearen lehen dantza ikusgarriak Miarritzeko Kasinoan eman zituzten. Gaitzeko arrakasta lortu zuten. Geroago, Churchill Erresuma Batuko lehendakariaren aitzinean

ere dantzatu zuten, honek Hendaian iragan zituenean oporrak. Euskara ikasteko proposamena ere luzatu zioten. 1949an Bordeleko Antzoki Handian, Parisen, Hego Euskal Herrian, Madrilen, Belgikan, Danimarkan, Suedian eta Venezian izan ziren emanaldiak eskaintzen. Ondoko urteetan ere emanaldi anitz eskaini zuten bazter guztietan.

Urte emankorra ukan zuen 1948an. Euskal ikasketen kongresuaren antolaketan parte hartu zuen, Telesforo Monzon eta Manu Sotarekin batera. Kongresu hark lan handia



Dresde hirian (Alemaniako Errepublika Demokratikoa), 1955eko irailean, Filipe Oihanburu akordeoia jotzen eta Gene Yurre kantari



Ekialdeko Alemaniako bigarren bira, 1959ko agorrilaren 9an. Filipe Oihanburu abesbatzaren zuzendari

eskatu zion, ekitaldiak antolatzeaz aparte, bi hitzaldi eskaini baitzituen, bata euskal dantzaz, bestea Sabino Aranaren eskolako neologismoez, Oihanbururen ustez —eta Lafitte ados izanki— «iraingarriak» zirenak. Urte berean euskarazko *Ramuntxo* antzerki lana antzeztu zuten Baionako antzokian, Oldarra abesbatzeko kantariak abesbatza lehiaketa andana batean aurkeztu zituen. Eta Baionako antzokian iragan zen finalean, abesbatza guztia aurkeztu zuen.

Europako bost herrialdetan ibili ziren 1949an. Ikusgarrietariko bat Donostiako Kursaallean izan zen, polizia frankisten kontrolpean. Poli-

ziak denbora guztian egon ziren erne, ea ikurrina edo mezu abertzalerik agertzen zen ikusteko. Oldarrarekin ari zen. Arrangoitzeko markesak gerriko zuri, gorri eta berdea zuen soinean, eta polizia gainera jauzi egin zioten. Ez zen Hego Euskal Herrian poliziekin ukan zuten arazo bakarra. Hiru urteren buruan, Filipe Oihanburu, Jakes Abeberri eta Oldarrako bertze kide bat atxilotu zituzten, Bilboko Athletic-en partidu baten ikustera joan nahi zutenean, ikusgarri bat eskaini ondoan. Sarrerak merkatu beltzean erosi izana leporatzen zieten, baina zazpi orenen buruan aske utzi zituzten.



Filipe Oihanburu Paris-Club telebista programan, Angelvin aurkezlearekin, 1961eko maiatzaren 9an

Desadostasunak ere agertu ziren taldean. Batzuek Oldarra taldeari «separatista» izatea leporatzen zioten, eta nahiago zioten funtzio turistikoa eman. Oihanbururentzat baitezpadakoa zen xedea bera euskararekin eta euskal mugimenduarekin lotzea. Oihanburuk argiki agertzen zuen abertzalea zela. Garai hartan hasiak ziren euskarazko klaseen ematen. Separatista izatea leporatzen zieten, Oihanburuk erantzuten zien Oldarrak Miarritzeri ospe handia ematen ziola munduan zehar. Desadostasunak zatiketa bihurtu ziren, ordea. Eta Oihanburuk taldearen zuzendaritza artistikoa eta taldea bera utzi zituen 1953an. Taldearen erdia berekin joan zen.



Nizan, 1961eko urriaren 28an, Maite Oihanburu Pablo Picasso besarkatzen

Etorki baleta eta abesbatza

1953an Oldarra utzi orduko sortu zuen Etorki taldea. 30 urteko abentura handi bat hasi zuen. Parisera joan zen lehenik, eta han sortu zuen «Etorki, euskal baleta eta abesbatza». Oldarra taldean metatu esperientzia baliagarri izan zitzaion. Emeki-emeki osatu zuen taldea, leku baten bila ibiliz, arazo ekono-



mikoak konponduz eta artisten bila abiatuz. Hego Euskal Herrian, Miarritzen eta Parisen bilatu zituen artistak.

Etorki taldeak euskal dantzan eta baletean oinarritutako hainbat ikusgarri eskaini zituen 30 urtez. Ikusgarriak Oihanburuk sortu zituen. Besteak beste, *Andoniñe* baleta izan zen Etorkiren sorkuntzetariko bat, non dantza, kantua eta antzerkia nahasi zituzten.

Munduan zehar anitz ibili zen Etorkirekin, Ameriketara, Londresen, Belgikan, Alemanian... 1954an Parisko Eliseo Zelaietako antzokian hasi ziren, profesional gisa. Handik landa, Londresera joan ziren, gero Irlandara... Eta gero hilabete oso batez ibili beharrak ziren Espainian eta Hego Euskal Herrian. Dantza taldean zituzten errefuxiatuak Iparraldean gelditu ziren. Egun batez Iruñeko Gaiarre antzokira deitu zuen, lehenbiziko emanaldirako noiz iritsi behar zuten galdetzeko. «Baina ez dakizu? Debekatuak zarete!», erantzun zioten. Taldea abisatu gabe, Espainia eta Hego Euskal Herriko bira guztia debekatu zioten. Arrazoia zen ohorezko komitean Monzon, Agirre eta horiek bazirela. Nahiz eta komite horretan abertzaleak ez ziren batzuk ere bazeuden, besteak beste Miarritzeko auzapez Guy Petit (Francoren aldekoa), hala ere debekua ukan zuten.

Andoniñe bailetako eszena bat

Euskal Herri barnealdean ere beren ikuskizunak eskaini zituzten, eta gaitzeko arrakasta lortu ere. Etorkiko zuzendaria euskalduna izateak halako errespetu bat eragin zuen. Halaber, dantzak hain ederki eta inoiz ikusi ez zuten eszenifikazioan emateak miresmena sortu zuen barnealdeko ikusleen baitan.

Iranen, Venezuelan, Tunisian, Turkian, Grezian eta beste leku anitzetan izan ziren. Baita Sobietar Batasunean ere. Baina 1957tik 1965era bitartean, nahiko urte lasaiak iragan zituzten, besteak beste aurrekontuak ez zielako talde profesional gisa hazteko aukerarik eman. Oihanbururentzat hats hartzeko aukera izan zen.



Filipe Oihanburu Saran, 1969ko otsailean



Donibane Lohizuneko Ducontenia parkean, 1968ko uztailearen 20an Oihanburu gitarra jotzen. Julian Olaz eta Kortajarena jarririk

Bakounine eta Marx

ala ere, ikusgarriak ematen segitu zuten, kosta ahala kosta. Parisko Eliseo Zelaietako antzokian dantzan eta kantuz hasi zirelarik, arrakasta handia lortu zuten. Jendeak biziki ongi zela erran izanak, taldeari itzaropena eman zion. Profesional izaten segitu ahal izanen zutela pentsatu zuten. Baina ez zuten profesional gisa jarraitu. Horretarako behar zuten dirua ez zen sartu. Horrek gogoetak eragin zizkion Oihanbururi. Horrez gain, gipuzkoarra zen koinata komunista bat bazuen. Hura entzunez komunista bilakatzen hasi zen.

Ikusgarri batzuen eskaintzera joan ziren 1959an Ekialdeko Alemaniara. Alema-



Filipe Oihanburu Hego Afrikan, zuriak eta beltzak bereizten zituen legearen sinbolo zen aulki batean jarririk, 1972ko otsailean

niako itzuli hura baldintza txarretan iragan zen, eta inoiz gertatu ez zena pasatu zen, dantzariak dantzatzeari uko egin zioten. Oihanburu komunista zen, baina alderdi komunista utzia zuen Etorkiko kide baten aholkuari jarraiki, ikusgarriaren antolatzaileei ez zien erran komunista zela. Bestela, Frantziako Alderdi

Komunistarekin xuritu beharko zituen aferak. Istilu haren ondorioz, beharbada, alderdia uste baino lehenago utzi beharko zuen.

Komunistek alde onak ere badituztela aitortzen du Oihanburuk. Alderdiko kide izanez anitz ikasten dela uste du. Langile batek alderdian idazten eta mintzatzen ikasten duela ikusi zuen. Familia edo talde giroa ere ezagutu zuen, eta horri garrantzia handia ematen dio.

Oihanburu gogorra da errepetizioetan, emaldi onak eskaini nahi baititu. Baina errepetiziotik landa besta handiak egiten dituzte.

Giro hori sendi zuen alderdian. Hamar urtez Alderdi Komunistako kidea izan zen. 1968an Sobietar Batasuneko armada Pragan (Txekoslovakia) sartu eta hango gertakariak min egin zioten. Orduan alderdia utzi zuen. Eta Bakounine irakurtzen hasi zen. XIX. mendeko «bi etsai handiak» ziren Bakounine eta Marx. «Marxen autoritarismoa» eta «Bakouninen libertarismoa» ikusten zituen Oihanburuk. Bakouninen bizia irakurriz ohartu zen «gizon handia» zela. Bakouninen «sozialismoa, askatasunik gabe, kuartela da» esaldia du gogoan Oihanburuk. Orduan anarkista izaten hasi zen.



Parisen, ikusgarri baten ondotik, 1968ko ekainaren 15ean, 68ko maiatzaren giroa oraino sendi zela



Filipe Oihanburu eta bere taldekideak zulu batzuekin, Hego Afrikan



Iranen, 1977ko otsailean. Oihanburu zutik, ezkerretik hasita lehena

France Culture irratian pentsatu zuten anarkismoari buruzko emankizun bat egin behar zutela. Oihanburu hasi zen emankizun horren egiten. Norbaitek emankizun hura entzunez, gai horri buruzko liburu bat idaztea galdegin zion. *La revanche de Bakunin ou de l'anarchisme a l'autogestion* liburua argitaratu zuen 1976an, bere lehen liburua. Liburu horretan erakusten du XIX mendetik hona alde libertarioa eta alde marxista gaizki moldatu izan direla. Komunistek Espainian izan zuten jarrera kritikatu zuen. Gerla zibilaren galtzearen arrazoiatariko bat komunistei leporatzen zien. Komunistek buruzagi troskista bat hil izana edota anarkistekin gogorrak izana salatu zuen. «Ez bagenu gerla hori galdu, pentsa zer izanzen zen egoera...», dio Oihanburuk.



Oihanburu, Bogotan

Komunisten kontra itzuli baldin bazen ere, oraino jarraitzen du kapitalismoaren kontra izaten. Bushen jarrera, Afrikako HIESa, Kyotoko protokoloa ez izenpetu izana eta abar leporatzen dizkio kapitalismoaren ereduari.

Diruak kudeatzen duen mundurik ez du nahi. Horren orde z pentsaerak eta tolerantziak kudeatzen duen mundua nahi du. Baina ez komunismorik. «Estalin da kriminal handienetarik bat.» Baina Oihanburuk hori ez zekien alderdian sartu zenean. Zazpigarren kongresutik landa sartu zen. Kroutchtcheven garaian sartu zen. Estalinen garaian baino «hobeki» zen. Baina «berriz hasi» ziren. Pragako gertakariak okaztatu zuten.

Irratilaria lanetan

Irratilaria lanetan ere ibili zen. Etorki taldea une txar batean zen garaian, zorrez estalirik zegoenean, Parisen egon zen. Gazte denborako lagun batekin harremanetan sartu zen. Lagun hura Pierre Schaeffer zen. Radio France d'Outre Mer (Itsasoz haraindiko Frantziako Irratia) asmatu zuen, afrikarrei haienezako irratsaioak eskaintzeko. Garai hartan Frantziaren koloniak oraino ez ziren askatuak. Oihanburu irrati hartan animatzaile lanetan hasi zen. Biziki oroitzapen ona du lan hartaz. Errealizadorea eta esataria izan zen aldi berean.

Charles De Gaulle-k boterea hartu zuenean Frantzian, Schaeffer irratiatik kanporatu zuten, ez baitzen De Gaulle-ren aldekoa. Oihanburuk, hala ere, irrati hartan beste sei urtez lan egin zuen. Irratia izenez aldatu zen, eta Office de Cooperation Radiophonique (Irrati kooperazio bulegoa) izena hartu zuen.



Filipe Oihanburu zuzendari lanetan, San Diegon (Kalifornia)

Garai hartan, Alderdi Komunistak Vitry-sur-Seine-ko (Parisko eskualdea) kultura zentroko zuzendari izendatu zuen. 70.000 biztanleko hiri hartako udaletxea komunisten esku zen. Lan hartaz ere biziki oroitzapen ona du. Alderdiaren baitan askatasun aire bat sendi zuen, Georges Marchais oraino ez zelarik alderdiko buru. Kultura zentro hartara pertsona ezagun franko gonbidatu zuen, besteak beste Barbara eta Graeme Allwright. Hiru urtez lan egin zuen zentro hartan. Alderdi Komunistarekin haserretu ondoan lan hura utzi zuen.

Gero France Culture irratian hasi zen lanean. Bere irratsaioetarik bat zen zorionari buruz mintzatzea. Arrakasta lortu zuen irratsaioa izan zen. Beste irratsaio batzuk egin zituen Anarkismoari buruz eta Senegali buruz, han ere izan baitzen.



Filipe Oihanburu dantzan, 1984ko udan, Miarritzeko udal kasinoan



Kontzertua Asnieresen (Frantzia), 1992ko maiatzaren 21ean

Berriz dantzara

Ez zuen denbora anitzez lan egin France Culture irratian. 1976an, beste dantza talde bat sortu behar zuela bururatu zitzaion. Parisko inpresario batek Oihanbururen taldea Kanadan, Japonian eta AEBn gaindi ibili arazi nahi zuen. Beraz, Oihanburuk talde profesional bat sortzea erabaki zuen. Horretarako irratia utzi zuen, eta emazteak Parisen medikuntzako aldizkarian zuen lana ere utzi zuen. Dena utzi zuten eta Ibarlara (Baxenabarre) joan ziren. Han Ipar Euskal Herriko, Gipuzkoako eta Bizkaiko hogeita bost bat lagun bildu ziren.

Taldeak ez zuen hitzeman zioten bira handi hura egin. Aldiz Iranen eta Venezuelan ibili ziren. Ez zen aski, ordea, bizibidea ateratzeko. Baina Euskal Herrian bizi da orduz geroztik.

Geroago Radio France Pays Basque irratian kolaboratzen hasi zen. Egunero euskarazko emankizun bat egiten zuen. Ipar Euskal Herriko herrietan gaindi ibiltzen zen, herriko erretorearekin, irakaslearekin eta auzapezarekin mintzatzen zen irratsaiorako. Etxean oraino zinta andana bat dauka metaturik. Anitz dira, baina anitz galdu ditu.

Garai bertsuan euskal deituren hiztegia argitaratu zuen. 1984an aurkeztu zuen. Orain

lan hartaz damutzen da. Bere biziko hamar urte iragan zituen liburu horren egiten. Euskal unibertsitarioek liburu hori anitz kritikatu zuten, Filipe Oihanburuk ez baitu unibertsitateko diplomarik, eta titulu horiek gabe, ez duelako lortu ikerlari lan baten egiteko zilegitasuna. Kritikak kritika, liburu hori anitz saldua izan zen. Oihanbururi ez zitzaion ongi iruditzen Iparraldeko euskaldunek berek ez zezaten jakin beren abizenak euskal jatorrikoak zirela maiz. Liburu hori irakurriz, Oihanbururen ustez, anitz ohartu ziren euskal jatorriko abizena dutela.

Dantzaz ere idatzi izan du. Lauburu elkarteak argitaratu liburu batean, kapitulu handi bat idatzi zuen, «Estetika, euskal dantzan». Euskal dantza anitz miresten du. Haatik, ez dezake

jasan dantza horiek gaizki dantzatuak izatea. Ez dezake jasan aureskua gaizki dantzatzea, edo ongi dantzatzen ez dakiten hurrei dantza araztea publiko baten aitzinean. Dantza zailak badira ere, gaur egun Gipuzkoan eta Bizkaian dantzari bikainak badirela uste du.



Paristik Tbilissirako (Georgia) bidean, hegazkinean



Euskal Herriko eta Georgiako ahotsak. Oihanburu ezkerrean

Gozamen urteak

Ez du inoiz galdu dantzarekiko lotura. Azken urteetan, bere izena daraman abesbatzaren ikusgarrietan dantzak sartzen dituzte berriz ere. Oihanburu abesbatzan gozarena bilatzen du. Taldea 1992an sortu zuen. Biziaz gozatzeko modua aurkitzen du amateur mailako talde horretan. Giroa bera talde profesioaletan baino gozoagoa dela dio, bereziki entsaioetatik landako uneak. Dantzariak hartzea ere errazagoa da, talde amateur izanez, behar duten unerako baizik ez dituztelako hartzen.

Halako talde batentzat ez da erraza, ordea, emanaldi aski ukaitea. Gaur egun zailtasunak dituzte horretarako. Orain abesbatza anitz daude bazterretan, eta profesional gisa ibiltzea zaila da Oihanburu abesbatzarentzat. Elizetan kontzertuak antolatzen dituztenean ez dute sarrera ordainarazteko ohiturarik, baina abesbatzak bizitzekotan kobratu behar du.

Dirua ez da inoiz gustukoa ukan duen helburua, Oihanbururentzat. Adinean gora joanik ere, lerdin eta alai bizi da. Dantzarekin, kantuarekin eta euskararekin lotura atxikitzeagatik pozik bizi da. Aitatxi alai bat da, eta harro dago alaba gazteenak haurrak ikastolan ezarri dituelako.



Oihanburu New Yorken, 1993an



Bere etxean

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzazatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Filipe Oihanburu berari, eta haren familiari.

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2007ko urria

Ale-kopurua: 2.300

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Maketazioa: José Luis Casado González

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 978-84-457-2617-4 (Lan osoarena)
978-84-457-2618-1

L.G.: BI - 2587-07

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística